

# GERRA GAIZTOA



Aberea abere dalako jaiotzen,  
 Gaiztoa izateak enau arritutzen,  
 Ezauera gabea baiña izan arren,  
 Gizonaren antzera ¿au noiz da saiatzen?  
 ¿Noiz du bere lagunik ill otzik botatzen?

¿Mirari alda berriz abere diranak.  
 Ikustea egiten noizbaiten jazarrak?  
 ¿Ez dituzte guztiak gorputzean armak,  
 Onek ortzak, ark tronpa, besteak adarrak  
 Jaungoikoak burua zaintzeko emanak?

Baiña, armarik gabe jaio zan gizona;  
 Jaunak zergatik zuen eñ arrazoiduna,  
 Ezagutzeko diña zer dan tsartasuna,  
 Igarteko bai eta zer zuzentasuna;  
 ¿Zertako eman zion bestela zentzuna?

Bestek ez du munduan artzen gorputzean  
 Gizonaren doirik sortutzen danean,  
 ¿Ta nola ikusten da abere antzean  
 Bere lagunarekin sarritan pelean,  
 Lotsatutzen ez dala zeruen aurrean?

¿Nola berriro diot arrazoi ta guzti,  
 Anima iru almen dituenaz nasi,  
 Ezertara pakean ezin dala bizi,

Burua oi duela gau ta egun ausi,  
Gerraz albadu goia beretzat iritsi?

¡Zorigaiztoko aundi gura izatea!  
Gizon arroen griña tsit doakabea,  
Gerrak geienez dute or asierea,  
Ortik gero ainbeste erro ematea,  
Bete egiteraño miñez gizartea.

¡O! gerra oso plaga gorrotagarria!  
Gizonak diran arte duena bizia,  
Luzifer deabruak zeruan asia,  
Soberbiak zein duen buru itsusia,  
Jaunaren kontra antsen dalako jaikia.

Arek ipintzen ditu gizonak gerretan,  
Pillatutzeagaitik frutuak euretan;  
Berak sua piztzen du biotz gaiztoetan,  
Adoratzeko Marte, odol erreketan,  
Bere serbitzariak kanpo zabaletan.

¿Zer dakusgu gerretan, ezpada aienea?  
Ezpada negar eta kurriska tristea?  
Ezpada errukia dana aztutzea?  
Ezpada egarria odolez illtzea?  
Artarako kendurik bestei bizitzea?

Orregaitik gorrotoz, gerra dakus Jaunak,  
Baita begi tsarrakin Errege zur danak,  
Dakizkite beraren ondore zitalak,  
Odolezko letrakin eskribi diranak,  
Diralako on gitsi, ta milloiak tsarrak.

Bestela ¿noiz zikintzen dira oitura onak?  
¿Noiz etsaitu len lagun maiteak ziranak?  
¿Noiz galdu sal-erosi merkatarienak?  
¿Noiz atzeratu arte eta ikaspenak?  
¿Ta ostu eskubide legez zuzenenak?

Irakurri ditzagun zintzo istoriak,  
 Antse ikusten dira gerren tsarkeriak;  
 Baña, itsi nai ditut nik oraiñ begiak,  
 Asi ez dakizkidan bereala biak;  
 Isurtzera malkozko tsirrio biziak

Gerran aitzak dardaraz nik ditut ikusten,  
 Su eta gar-artean erriak kiskaltzen,  
 Zerua arpegia beltzez estalitzen,  
 Lurrera ark tsimistak iñoiz bota arren,  
 Ainbeste gaitz zergatik ez duen egiten.

Izugarri da gerra madarikatua,  
 Askoz obetzat daukat kolera mormua,  
 Orduan umiltzen da gizon aunditsua,  
 Baiña, gerran aurrera gogortuaz dua,  
 Menderatzen ikusi baño len burua,  
 Nai lukelako errauts ikusi mundua.

FELIPE ARRESE TA BEITIA

---

## SECCIÓN AMENA

# ¡EUP!...

—Hola don Frantzes; que tal, que tal?

—¡Oh, mala temperaturra amico mío.

—¡Sí, sí; día te vá y día te viene y siempre siempre igual, esta denbora tan zirzilla; humedación y ensusiasión hasta las anca zañas, esto hase empadar á cualquier besino de hijo, no es verdad?

—Oh sí, tiene osté mocha razón.

—Y las paseos y calles llenas de loya y puerquería, esta llubia tan mojada, es mas peor que aquellos tantos grandes, siempre *chur chur* como jariyos de itute de potos biejos, y si uno se chimista alla bá ji-